

7. FUNTSEZKO BALIABIDEAK

Gure proiektuak funtziona dezan, hainbat elementu eta material behar ditugu fisikoak nahiz intelektualak.

Baliabide fisikoei dagokionez, material didaktikoa, altzariak, hezitzaileak eta teknologia berriak beharrezkoak dira. Hauek guztiak gure enpresak haurrera jarraitzeko beraien funtzioa betetzen dute.

Material didaktikoa hainbat elementu hartzen ditu kontuan: paperak, koloretako kartulinak, mota desberdinetako pinturak (akuarelak, tenperak, margoak, koloretako arkatzak...), ipuinak, kola, guraizeak, puzzleak, eraikuntza jolasak, memoria jolasak, sailkatzeko jolasak, mozorroak, txontxongiloak, musika tresna sinpleak, pilotak, uztailak, sokak, Pikler materiala (zapia eta pilota), Montessori materiala, Waldorf materiala...

Horrez gain, material didaktikoa erabili ahal izateko beste tresna batzuk beharko ditugu oinarritzat, esaterako, altzariak; Pikler aldatokia, Pikler eskilera, Pikler aldapa, armairuak, mahaia eskulanak egiteko, aulki txikiak...

Baliabide intelektualak eta giza baliabideak: Baliabide intelektualak gure hezitzaile taldean anitzak dira. Biancak matematikarako gaitasun handia du, eta kostuak eta irabazi iturriak kudeatzeko erraztasuna izan du. Ihintzak, Euskara, denboraren kudeaketa eta motibazioa sustatu ditu taldean eta honek proiektua gogoz egitea eragin du taldean. Selenak sorkuntzarako gaitasun handia du, eta prozesuan zehar oso ideia onak proposatu ditu. Naiarak berriz, hizkuntzarako gaitasun handia eta sormen handia du, eta honek informazioa antolatzeke erraztasuna eman diu.

Finantza-baliabideei dagokionez, gure aurrezkiez gain, mailegua eskatuko genuke hasierako kostuak ordaintzeko.